

Haurren abesbatzen BBKantuz txiki 2024 topaketa, Bilboko Koral Elkarteak sustatua, Bilbon egingo da

Bilbon, 2024ko maiatzaren 22an - Bilboko Koral Elkarteak, BBKrekin eta BAE - Bizkaiko Abesbatzen Elkartearekin elkarlanean, BBKantuz txiki 2024 ekitaldia antolatu du. Haurren abesbatzen topaketa hau maiatzaren 25ean, larunbatean, izango da, 12:00etan, Bilboko Arriaga plaza enblematikoan. Bertan, hainbat abesbatzatako 150 ahots gazte bilduko dira komunitate osoari musika-esperientzia paregabe eta aberasgarria eskaintzeko.

BBK banku-fundazioaren laguntzari esker, ekitaldia lurraldean haurren musika korala sustatzeko oinarria izango da, BBK BBKantuz txikiren antolaketan funtsezko bazkidea izanik. Kultura- eta hezkuntza-konpromiso honekin, talentu gazteek kantuarekiko sentitzen duten pasioa partekatzeko eta beren burua artistikoki garatzeko plataforma bat izango dute eskura.

Topaketan, zenbait eskola-koruk hartuko dute parte, Eskolan Kantariko hirurekin eta pianoan Miguel N'Dongekin hasita. Deusto Eskolan koruak, Nora Francok zuzenduak, Roberto Goldarren "Pobre mi sapito Tito" abestuko du, bai eta Giorgos Katsarosen eta Alekos Sakellariosen "I like the flowers" (tradizionala) eta zuzendariak berak moldatutako "To petinari" ere. Ondoren, Basauriko Basozelai Gaztelu Eskola eta Tiboli Eskola taldeek, Sandra Calvo Abarzuzaren zuzendaritzapean, "Xarmengarria" euskal kantu tradizionalarekin eta Nachiko Terashimak moldatutako "Canção japonesa" pieza japoniar tradizionalarekin liluratuko dute publikoa.

Algortako Lilura Abesbatzak, Mariasun Yangüasek zuzenduta eta Borja Monterok lagunduta, "A million dreams" interpretatuko du, *El gran showman* obraren soinu-bandakoa, eta Greg Gilpinen "Whisper" ere bai. Jarraian, Bilboko Koral Elkarteko haurren koruek, Jose Luis Ormazabalek gidatuta eta berriz ere Miguel N'Dongek lagunduta, Tomás Garbizuren "Intxauspeko alaba", Jim Papoulisaren "Oye" eta, Unax Pedrerok klarinetearekin lagunduta, Silvia Malbránen "Chacareando chacareras" kantatuko dituzte, bai eta, bukatzeko, Oskorriren "Ponpiola" ere.

Ekitaldiari amaiera emateko, abesbatza guztiak oholtzan elkartu, eta "Tutira mai" (maori tradizionala), Xabier Sarasolaren "Uso zuria / Akerra ikusi degu" eta "Rock my soul - Bakea munduan" (tradizionala) batera abestuko dituzte.

Abesbatzen topaketa honek, musika eta kultura ospatzeaz gain, lankidetzaren, elkarri entzutearen eta elkartasunaren balioak sustatuko ditu koruetako kantari gazteen artean.

Bilbao acoge el encuentro coral infantil BBKantuz txiki 2024 promovido por la Sociedad Coral de Bilbao

Bilbao, 22 de mayo de 2024 - La Sociedad Coral de Bilbao, en colaboración con BBK y BAE - Bizkaiko Abesbatzen Elkartea, presenta el evento BBKantuz txiki 2024. Este encuentro coral infantil tendrá lugar el sábado 25 de mayo a las 12:00 en la emblemática Arriaga Plaza de Bilbao. El evento reunirá a 150 jóvenes voces de diversas agrupaciones corales, ofreciendo una experiencia musical única y enriquecedora para toda la comunidad.

Gracias al apoyo de la fundación bancaria BBK, este evento se convierte en un pilar para el fomento de la música coral infantil en el territorio, siendo BBK un socio clave en la organización de BBKantuz txiki. Con este compromiso cultural y educativo, se permite que los jóvenes talentos tengan una plataforma para compartir su pasión por el canto y desarrollarse artísticamente.

El evento contará con la participación de varios coros escolares, comenzando con tres procedentes de Eskolan Kantari y Miguel N'Dong al piano. Deusto Eskolan dirigida por Nora Franco interpretará piezas como "Pobre mi sapito Tito" de Roberto Goldar, "I like the Flowers" (Tradicional) y "To petinari" de Giorgos Katsaros y Alekos Sakellarios, arreglada por la propia directora. A continuación, las agrupaciones de Basauri Basozelai Gaztelu Eskola y Tiboli Eskola, bajo la dirección de Sandra Calvo Abarzuza, deleitarán al público con la tradicional vasca "Xarmengarria" y la "Cançó japonesa", una pieza tradicional japonesa arreglada por Nachiko Terashima.

El coro Lilura Abesbatza de Algorta, dirigido por Mariasun Yangüas y acompañados por Borja Montero, presentará "A million dreams" de la banda sonora de El gran showman y "Whisper" de Greg Gilpin. Después, las formaciones infantiles de la Sociedad Coral de Bilbao, lideradas por Jose Luis Ormazabal y acompañadas de nuevo también por Miguel N'Dong, interpretarán "Intxauspeko alaba" de Tomás Garbizu, "Oye" de Jim Papoulisa, "Chacareando chacareras" de Silvia Malbrán con la interpretación del clarinetista Unax Pedrero y finalizarán con "Ponpiola" de Oskorri.

Para cerrar el evento, todos los coros se unirán en una actuación final con las piezas "Tutira mai" (Tradicional Maorí), "Uso zuria / Akerra

ikusi degu" de Xabier Sarasola y "Rock my soul - Bakea munduan" (Tradicional).

Un encuentro coral que no solo celebra la música y la cultura, sino que también fomenta valores de cooperación, escucha y solidaridad entre los jóvenes coralistas.